

den film bat egitera deliberatu da orduan ekoizlea. Eta gidoi bat idazteko enkargua egin du, zertaz izango den ere ez dakiela. Azkenean Bruegel zaharrari buruzkoa izango da istorioa, aspaldi Axel Den Dooven delako batek ikasle garaian idatzitako gidoian oinarritua.

Den Dooven bihurtuko da, beraz, *Belladonna* eleberriko protagonista nagusia. *Entzungorra* esan nahi du Den Dooven abizenak. Zinema eskolan *Haratustela* izeneko gidoi bat idatzi zuen, ikaskide batek etsamina gaindi zezan; eta karanbola harrigarri batez, urte mordo bat geroago film bilakatuko da, *Pieter Bruegelen amodioa* izenburuarekin.

**295 literatur lanen egilea izan zen Hugo Claus. Nobel sarirako hautagaia izan zen behin baino gehiagotan**

**Eszena laburrez egituratuta dago 'Belladonna' eleberria, pelikula baten tankerakoa da**

Dirk Van Munster goitizenez poema liburu bat idatzi zuelako besterik ez da ezaguna Den Dooven. Gaur egun Schellen museoa zuzentzen du. Gizon handia da; Roberte emazteak utzi egin zuenez gero, 120 kilokoa egin da; «Aita, zerbait egin beharra daukazu!», esan dio Just semeak. Baina aitari bost axola zaionez gizentasuna, berehala, hiru astetan egin duena izan da gidoiarekin nobela bat idaztea, filma errodutzen hasi daitezen baino lehen.

### Arrakastaren ustelaz

Den Dooven bigarren emazte Claire, Grootaers aktorea (Bruegel izango dena), Just semea, Caroline erraina, Oorslag ekoizlea, Malle Moe prostituta sadomasokista, Marigaal gidoigilea, Spanoghe idazle sozialista, Meulemans kultur ministroa eta abar, Flandriaren koadro makur bat da Hugo Clausek eleberrian marrazten duena, gizartearen aurrean jarritako ispilu erraldoi bat balitz bezala irakurleentzat.

Tira... eta filma zer?, zer moduzkoa izan da errodatu duten pelikula? Kritikari batek idatzi du: «Ikusle xumeek bilatzen duten guztia dauka: bortizkeria, maitasuna, umorea, Flandriaren historiako pasarte liluragarriak». Beste batek: «Gure herrialdeko Spielberg da Oorslag». Eta beste batek: «Astunkeria bat!, modaz pasatakoa, topikoz bete».

## Bizi-espektatiben hondarrak

Irati Majuelo

**O**ndo bizi ginela uste genuen garaien ondoren utzitakoa da», laburbildu zuen Xabier Mendigurenek liburuaren aurkezpenean. Frustrazio eta aseeginetasun sentazioak ere aipatu ziren. Egunerokotasunaren hondakinetan zehar mugitzen da Malagonen azken liburua, gertukoetik harremanek eta bizi-espektatibek utzitako hondarren artean, Iruñe Izquierdoren azalak bikain adierazten duenez. Hamabost ipuinetan biltzen dituen drama txikiak drama handiagoak biltzen dituzte, eta horretan datza liburuaren indargune nagusia.

Pertsonaiek zentraltasuna dute Malagonen ipuingintzan. Kontakizuna laguntzen duten espazio, denbora eta gertakariez harago, fikziozko pertsonen izaera lantzen du bereziki. Ipuin psikologikoak dira oro har, egiten dugunaren eta pentsatzen dugunaren ar-

teko amildegia islatzen dutenak. Horretarako, ikuspuntu aldaketa ugari erabiltzen ditu, sarri pertsonaia baten pentsamendu jarioetik besteenera salto egiteko trebetasuna erakutsiz. Perspektibaren lanketa horrek ipuinei ikuspegi korala ematen die, bereziki *Go-rrotoa eta irudimena*, *Babes kopia*, *Larrialdi zerbizua* eta *Klaustroa* lanetan.

Pertsonaien nolakotasunari



**'Ez dakit zertaz ari zaren'**

**Idazlea:** Ana Malagon. **Argitaletxea:** Elkar.

## Jolas narratiboa

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

Imanol Mercero

**Z**er pentsatua ematen du Izagirrek eta Irimarrak sinatutako bilduma honek.

Dagoeneko sei ale argitaratuta ditzuztelarik, pare bat kontu berderen esan daitezke, hartzen ari den norabidea finkatuz eta dutela dirudi-eta. Hain zuzen ere aurrekoak irakurri gabe nekez ulertzen baitira ondorengoak.

Beraz, jarraian aipatutakoak bildumako ale guztientzat dira baliagarriak, *Kutixiren mehatxua* den seigarren honi begira idatzi badira ere. Ez da inondik ere obra sailka erraza, ez artez ezta moldez ere, eta honegatik bakarrik jada interesgarria bihurtzen da. Testuek ez dute narrazailerik, guztia, irakurgarri den guztia, elkarrizketak dira.

Gerta liteke –askotan gertatzen zaigu– pentsatzea testua poesia hutsa dela, nahastu egiten baitzaizkigu irakur moldeak.

Istoria kokatzen lagunduko liguken kontalariaren mintzori gabe, testuinguru iheskorrean



**'Altzoko Handia eta Kutixiren mehatxua'**

**Idazlea:** Koldo Izagirre. **Ilustratzailea:** Irimarra. **Argitaletxea:** Elkar.

behatz gero, behea jotako pertsonak aurkituko ditu irakurleak, bizitzak abandonatuak baino beren burua abandonatu dutenak. Eguneroko zorigaitzetan igerian, pertsonaia patetikoen barrena salto kontzientea egin du Malagonek. Hala ere, gainbehera totalik, katastrofe ekidinezinik, amorrugabeko gabe-ko ipuinak dira. Pertsonaia putzu sakonek gidatzen dituzte istorioak, baina behin ere lur jotzera iritsi gabe. Bizitzak nekaturako pertsonaia diera hortaz, baina betiere gizartearen publikoki sozializatzeko duin mantentzen direnak. Beren burua zigortzen dute, baina neurrian.

Gizarte indibidualista da Donostiako idazleak agerian uzten duena, eta haren ondorioz gailentzen den axolagabekeria kudeatzeko zailtasunak azaleratzen dituzte protagonistek ipuin guztietan, norberaren indiferentzia eta norberarekikoa. Portaera ezaxolotien bueltan lantzen ditu heriotza, gaixotasuna, bakardadea eta abandonuaren gisako gai unitbertsalgoak. Hari horri jarraiki, familiak erdigunea hartzen du ipuin gehienetan, baina bereziki nabarmentzen da bikote harremanetan egunerokotasunak eragiten duen higadura. Espektati-

ben gainbehera, esperotakoa jaso ezinak eragindako hutsaltsuna, inertiaren hautsa... ezin uka, pertsonaia aspertuta daude daukaten bizitzaz, eta horrek aurreikusten errazak bilakatzeko dituen amaiera zenbait. Errealitatea islatzeko saiakera gordina egin du Malagonek, ironia handiz gainera, baina asperradura modernorari horren fidel diren testuek irakurle aspertzeko arriskua dutela esango nuke. Malagonez harago, esanguratsua da gure garaia islatzerakoan zenbat jotzen den asperdurara azken aldiak, bikote heterosexual nekaturak beteta baitago azken urteotako euskal literaturara. Orokorrean jolasa sumatzen da faltan, liburu honetan ere bai.

Izan ere, errealistotik aldentzen denean du distira gehien liburuak, esajerazioa beldurrik gabe abiatzen denean, azken ipuinean kasu, edota errealitatearen mugak difuminatzeko saiakeretan (*Mina, Larrialdi zerbizua*). Hala bada, egunerokotasuneko eszenak literaturara ekartzeko duen gaitasuna itzalpean utzi gabe, aurrez idazleak erabili izan dituen zorrotasun kolpeak topatu ezinik ibili da irakurle hau, harridurarako tartet handiagotan bila.

jasotzen ditugu pertsonaia esanak, irakurketa samurtuko luke-ten etenik edo markatzailerik gabe, narrazio bisualaren menpe. Irudipen honen alde esan beharra dago testua erri-matua dela, maizenik, eta boz gora esateko erritmo berezkoa erakusten duela.

Gainera, testuaren afera kiribiltze aldera, zenbaki gehienetan kantagintzari egiten zaizkio erreferentziak, dela Oskorri edo Benito Lertxundi, dela kantutegi tradizionalak, dela nik harropatu ez ditudan makina bat.

Funtsean hain harritzekoak ez diren kontuak guztiak, batik batik Izagirrek bere obran zehar (Metta, Anton Kaiku, Dumitru...) erakutsitako joeren garapen naturala diruditelako: ispilu lana egiten duten pertsonaia, ahokotasunaren garrantzia, kritika soziala, surrealismo ukitua... Gakoa, beraz, Koldo Izagirrearen obra ezagutzeko da.

Edo gakoetako bat, zeren, albumetan irudigintzak izaten baitu bere parte, irakurketa burutzeko ezinbestekoa gertatu ohi dena.

Eta honek garamatza albumen irakurketak hasiberriengan maiz

sortzen duen ezin ulertu batera: albumetan ilustrazioa irakurri egiten da, irudigintzak duen zereginetako bat kontaketen eragile izatea baita. Gainera, obra honetan garden gertatzen da ilustrazioaren irakurketa, idatizko testuak burutu gabe utzitako narrazioaren papera irudiek hartzen dutelako.

Zenbaki desberdinetako azalek iradokitzen duten gisan, ilustrazio erraza eskaintzen zaigu: kontraste handiko koloreak, forma borobildu gozoak, kolore masa handiak, hondo neutroetan ezarritako irudi batik bat humanoak, paisaia urbanoa –agertzen denean– ezaugarri primarioen-tara ekarrita. Eta ezaugarri hauen parean jolas narratiboa gauzatzen baliabide grafikoak agertzen dira: perspektiba ezohikoak; plano orokorrak zein lehen plano oso gertukoak; proportzio eta bolumen behartuak.

Guztiarekin Irimarraren lana kontakizunaren ardatz bilakatzeko da, irakurlearen helduleku nahitaezkoa, istorioaren pausoak estropezu egiten gabe jarraitu nahi badira. Haren inguruan, kantu jostalari bat balitz bezala, testua dabil.